



Jorge Oteiza bere estudioan. Ruiz de Azua argazkia

Jorge Oteizaren euskal egonezina

EZAGUN da Félix Maraña donostiar idazleak euskal kultura eta euskal sortzaileengana gordetzen duen itzala. Hamaika dira haren barnean eta haien gainean eratu, antolatu, sortu, suspertu eta gauzatu dituen lanak. Euskal pentsalari, idazle, poeta edota eskulturgileen inguruan kaleratu dituen lanak hamaika diren bezala. Horietako bat dugu, *Jorge Oteiza, elogio del descontento* (Birmingham Edit., 1999) erreportai-lan oso berezia. Berezia, beste inoiz eta beste inon ez bezala azaltzen zaizkigulako bertan Jorge Oteizaren ibilbidea, izakera, jarrera eta kulturatik haratago dagoen herri proposamena. Sakon, serio eta erraz.

Jorge Oteiza 1908an jaiotzen ikusi zuen Orioko arrantzale herriak, Orioko Udalak hala ulertu eta aipatu liburuaren euskarazko argitarapenarekin erantzun du: *Jorge Oteiza, egonezinenaren laudorioa* (Birmingham Edit., 2001).

Iazko aurren egunetan, Iñaki Gurrutxagak, Orioko Kultur Etxeko arduradunak eta José Miguel Makazaga alkate ohiak agertu ardurari esker, Jorge Oteizaren artista izakera aztertu eta zainduko zuen lehen erakusketa antolatu zen, urria-azaroa bitartean, Orion. "Jorge Oteiza, marrazkiak, irudiak eta hitzak" erakusketak, egun Valladolideko Montes Fundazioan ikusgai, estrainekoz herriratzen zuen haren lan grafikoa. Horrela erabaki zuen Oriok Oteizarekin lehen topo egitea. Eta berez dator jarraiekkoa:

Bere jaioterriko Udalak, baita Pietatearen birmoldaketa ere

Orioko Udalak egunotan kaleratuko du, Felix Marañaren Jorge Oteiza, egonezinenaren laudorioa saiakera-lan arrakastatsuen euskarazko itzulpena. Orain euskaraz ez ezik, Orio herriak Oteizagan izan duen ezinbestekotasunari dagokion atal berriaz ere


kokatzea erabaki du, gaztain egurrez Martin Perona oriotar artisauak egina, "lavadero" zaharra osatzen duen arkupetxoan, San Nicolás elizan. Eta Enbiltarren etxebizitzak, "Barberonekua" (Oteizaren biraitona, Getarian jaioa, medikua izan zen Aia-ko herri auzokidean), eskulturgileak Enbil sendiako pelotariarik ospetsuenari, Bittor Enbili, egin zion irudia hartuko du betiko.

Euskal Itsasalde horretan, herri horretako "Hendaia" etxean jaioa den artista unibertsalak, beraz, *Jorge Oteiza, egonezinenaren laudorioa* lanaren aurkezpenarekin, kultur ospakizuna nola birliltzen den ikusi ahal izango du. Liburu horretarako bereziki idatzia den lehen kapituluak irakurri ahalko duen lez.

Oriko: itsasadarraren arnasa

"Hautzaroko nire oroitzapen baikorrek, intimitatea zaintzeko berezkoa babesak baino ez dira. Gerora jakin izan dut iturburu estetikoak zuten babesak zirela: zeru biribila eta hutsa nire area zuloen hondotik, harriagan egindako zuloa, gure izeba Candelariaren istorio miragarriak, itsasadarraren arnasa, alde egiten zuen itsasadarra, baina puntualki itzuliko zela nekien eta gogo biziz haren zai ematen nituen orduak, itsasadarra zen ama bezala niretzat..."

Erreferentzi ugari azpimarratzen dute eskulturgilearen oroimenean Oriok hartzen duen betirako lekua. 50ko hamarkadako lehen urteetan, Arantzazuko frisoak jasoko duen iruditegia, bere ikur lana, lantzen hasten denean, multzo hartako lehen apostulua sortzeko gertu dagoela,



Oteizak, Inaxio Sarasua, Orioko estropadaren aurraunlari eta patrio historikoaren aupegikera beraren isla den burua egiten du.

Pedro Manterola irakasleak, Oteizaren lanaren aparteko aztertzaileak, oroimenean lehen erro hartatik, Orioko hondar ibaiertzean, hondartza zuloak babes hartatik, artista, guztiz

jaiotzen dela azpimarratzen du.

Testigantza berri batek, Oteiza haurragan, haren hezurdura irudimenekoan eta sortzailean, izeba Candelaria ipuin kontalariaren aztarna azaltzen du. Bihotzeko izeba Candelariaren ipuin kontakizunen eragin osasungarria. Eta oinarriko bigarren bat, Joakina izeba (Germán Arín bere osabaren emaztea), euskal artistak gizatasunezko irudi sendo, kuttun eta osoentzat jo duena.

Berea bezalako espresibide eta gaitasun unibertsalak dituen artista, hemengoa, hangoa eta inongoa dela esan badezakegu ere, Orio da bere idazlanetan gehien azaltzen zaigun herria. Hautzaroren eremuan bereziki, artistaren memoria iturburu, lehen sei haur urte haietako argira oroi minez, irudi minez, dardar minez itzultzen delarik, Enbil bere aitoren eskutik, Orioko hamaika bazterrak zeharkatuz, mundua sentitu, amestu, marraztu eta eraikitzen duen hauraren izakera gorpuzten duen espazioan.

Egonezinenaren laudorioa

Oteiza, mende hasierako euskal historia, politika eta artearen sentimentaltasunari —eta 98ko Belaunaldikideek baino adore gehiagorekin— aurka egiten dion lehen intelektualetarikoa da. Horrela, bilakaeraren lekuko,

garaian egoteko modua egiaztatzen du bere lanak; arte garaikidea eta horren sustrai historiko eta sentimentalak ulertu ahal izateko ahots berezietarikoaren irudia den garaian hain zuzen ere. Hortara dator *Jorge Oteiza, egonezinenaren laudorioa* testuaren muina.

Orain aurkezten de liburua, intelektual hitza zentzuz alde guztietatik gainditzen duen pertsonalitatea duen gizonaren kultur jarrerak, ekintzak eta planteamenduak agertzen dituen erreportaia zabala da. Erreportaia luzea den legez irakurri behar da. "Oriko Itsasadarraren arnasa" atal berriaren ondoan, modu guztietako kronikak, artikulak, elkarrizketak, komentarioak biltzen dira, denboran zehar egunkari, aldizkari eta talde-liburu ezberdinetan argitaratutakoak.

Aurkibidea gainbegiratzeko baino ez dago, *Jorge Oteiza, egonezinenaren laudorioa*, osotasunean hogei urtez landutako gazetaritza lan arretatsuen emaitza dela ulertzeko. "Atzera arraunean" hitzaurre apartak, "Itsasadarraren arnasa", "Oteiza, bere garaian", "Oteiza, bere Herrian", "Oteiza poesiagan", "Oteizarekin hiru elkarrizketa" atalak, orain artean argitaratu gabeko argazki ederrak eta dokumentazio gehigarri ikusgarri eta eredu garri batek osatzen dute eskolan, unibertsitatean eta orohar, irakurle-gean, Oteizak betiere pizten duen jakin mina sakontzeko eta areagotzeko esku liburua edota erreferentzia izatera deitua dagoen *Jorge Oteiza, egonezinenaren laudorioa* (Birmingham Edit., 2001) lana.

José Luis Padrón